

ONARRIAK - IV. ARGAZKI LEHIAKETA

SOPELA 2024

1. GAIA:

- Natura, kirola edo musika.

2. PARTE-HARTZEA:

- Edozein jatorri eta nazionalitatetako argazkigintzako profesionalak edo zaleak.
- Lehiaketak 05/2024 FAFPVren babes du, eta FAFPV antolatutako Argizaiola lehiaketan sailkatzeko baliagarria izango da.

<https://federacionfotovasca.org/eu/argizaiola/bases-argizaiola>

3. AURKEZPENA:

- Argazkiak aurkezteko epea irailaren 1etik irailaren 8ra bitartekoa izango da, egun biak barne.
- Parte-hartzaile bakoitzeko gehienez 3 argazki.
- Argazkiak helbide elektroniko honetara bidaliko dira revistaukfoto@gmail.com, eta datu pertsonal hauekin batera joan beharko dute:
 - Izen-abizenak
 - Herria
 - Harremanetarako telefonoa
 - Argazkiaren izenburua

4. ARGAZKIAK:

- Argazkiek JPG formatuan egon beharko dute, 300ppp-ko bereizmenarekin eta gutxienez 4700 px-koa alde nagusian. Digitalki manipulaturako argazkiak onartuko dira, baina testu, sinadura, ur-marka edo markoaren moduko elementurik gabe.
- Argazkietan ezin izango da ezagutu daitekeen adingaberik agertu.
- Lehiaketan parte hartzeak lehiaketaren oinarriak onartzea dakar. Oinarriak onartzearekin batera, erabiltzaileak bere datu pertsonalak egiazkoak eta egiaztagarriak direla berresten eta ziurtatzen du. Parte-hartzaileak adierazten eta bermatzen du bera dela lanen egile bakarra eta lehiaketara aurkeztu dituen lanen egile-eskubide guztien jabea. Era berean, parte-hartzailearen erantzukizuna izango da hirugarrenentzako eskubiderik ez egotea, bai eta lehiaketara aurkeztutako lanen gaineko irudi-eskubideengatiko erreklamazio oro ere.



5. IZEN-EMATEAK:

- Jardueran izena ematea doakoa izango da.
- Parte-hartzailea automatikoki inskribatuta egongo da, 3. puntuari (Aurkezpena) deskribatutako emaila bidaltzean.

6. SARIAK:

- Lehen saria: 350 €.
- Bigarren saria: 200 €.
- Hirugarren saria: 100 €.
- Herriko parte-hartzaile onenaren saria: 100 €.

- Parte-hartzaile batek ezin izango du sari bat baino gehiago jaso. Herriko sailkatu onenak sailkapen orokorreko lehen hiru postuetako bat betetzen badu, sarietako bat aukeratu beharko du. Sari banaketa igandean, irailak 22, izango da, 19: 00ean, Udaletxeko plazan.
- Adingabe batek saria jasotzen badu, adingabearen legezko tutorearen bitartez jaso beharko du saria.

7. EPAITZA:

- Epaimahaiak 3 argazkilari izango ditu, UK FOTOk izendatuak, eta haien erabakia apelaezina izango da.

8. LANAK ETA ERAKUSKETA:

- Irudien jabetza egilearena izango da, baina Sopelako Udalak bere erabilera-eskubidea erabili ahal izango du, baldin eta irudiaren egilea izendatzen badu, eta betiere lehiaketa edo Sopela Kosta Fest bera sustatzearekin zerikusia duten ekitaldietarako bada.
- Sailkatutako lehenengo 14 argazkiak Sopela Kosta Festan erakutsiko dira. Erakusketako argazkien formatu fisikoa Sopelako Udalarena izango da.